

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA

Herri plana osatzen



Kaixo herrikide!!!

Handik eta hemendik festa eta ospakizun kontuak datozkigu. Inauteriak eta Emakumeen Eguna segituan, San Pedro festen antolaketa... Eta ospatu nahian gabiltzan Igeldoko Entitatearen sorrera! Oraindik datarik ez badago ere, martxoan izango omen da. Adi beraz!

Horiez gain, beste hitzordu batzuk ere badira laster: Lapa Saria eta Pala Txapelketako finalerdi eta finalak. Jubilatuek eta Din-dineko bazkideek berriz, batzarra dute eta junta aldaketa egingo dute bi kasuetan. Bestalde, bi ekimen berri ere baditugu herrian:

"Eman eta jaso" eta "Gurea erabil deza-kezu".

Eta azkenik, aipatu beharra dago TETaren sorrerarekin lotuta, parte hartze prozesu bat eramango dela aurrera datozen hilabeteetan. Horiek denak bildu ditugu ale honetan.

Larunbatean hainbat ekintza izango dira Inauteriak ospatzeko

Arratsaldeko egitaraua izango da: maskarak egiteko tailerra, jolasak, desfilea, luntxa eta karaokea antolatu dira.

Martxoaren 1ean, larunbatean, Inauteriak ospatuko dira Igeldon. Horretarako, hainbat ekintza antolatu dira. Arratsaldean zehar izango dira ekintzak, 17:00etan hasita, plazan.

Lehenengo, maskarak egiteko aukera egongo da eta aldi berean, jolasak ere egongo dira: ping pong, dardoak eta toka, hain zuzen. Etxean ping pong-erako sarea edo palak edukiz gero, ekartzeko eskaera luzatu dute.



Bakoitzak bere moztzakoak eta ikuskizuna erakusketa aukera izango dute desfilean.

Antolatzaileek azaldu dute, bi kasu hauetan, 6 urtetik beherako umeek heldu baten laguntza beharko dutela.

Ondoren, 18:00etan, desfilea egingo da. Taldean edo banaka parte hartzeko aukera izango da nahi den musika eskatuz.

Ondoren, luntxa eskainiko da ume eta helduentzako Itsas Aurreko aterpean. Eta 19:00etatik aurrera, karaokea eta dantza egiteko aukera egongo da Goazenekin, Itsas Aurre barruan. 19:00-21:00 bitartean, barra irekita egongo da.

Egun bakarrean jokatu da Lapa Saria

Azken urteetan Igeldon musak izan duen gainbehera ikusita, aurten nola asmatu pentsatzen aritu dira antolatzaileak. Azkenean, egun bakarrean jokatzeko erabaki dute eta egun horretan Lapa Saria izatea jokoan. Martxoaren 7an izango da, ostiralean, Itsas Aurren. Txapelketa 22:00etan hasiko da eta 21:45etan izango da izen ematea. Emailaz ere eman daiteke: lapasaria@gmail.com.

Bikoteko 25€ ordaindu beharko dira.

Sariak honakoak izango dira: lapa sariak eta bi arkume irabazleentzat, arkumea eta bi sagardo botila bigarrenentzat, lau txuleta eta bi sagardo botila hirugarrenentzat eta bi oilasko eta bi sagardo botila laugarrenentzat.

Herriko muszaleei animatu eta parte hartzeko dei egiten diete antolatzaileek, ea giro pixka bat

jartzea lortzen dugun!

Gabilondo eta Esteban Euskal Herrikoan

Otsailaren 7an Euskal Herriko Txapelketako kanporaketa jokatu zen Igeldon. 8 bikotek hartu zuten parte eta Juanjo Gabilondo eta Oskar Esteban izan ziren nagusi. Hauek Gipuzkoako kanporaketa jokatu dute martxoaren 22an Itsasondan.

Ordazkariak izendatu eta batzarra egitea falta da TET martxan jartzeko

Ordezkariek izendatzean, Foru Aldundiak jarriko du lehenengo auzo batzarra egiteko eguna.

Abenduaren 20an sortu zen Igeldoko Toki Entitate Txikia. Dena dela, funtzionatzen hasteko, hainbat pauso ematea falta da oraindik. Ordezkariek izendatu behar dituzte alderdi politikoek (EH Bilduk 4 eta EAJ/PNVk 1) eta ondoren lehenengo auzo batzarra egingo da. Izendapenak jasotzean, Foru Aldundiak jarriko du lehenengo batzar hori egiteko eguna. Orri Informatibo hau idazterakoan, oraindik ez zegoen data zehaztuta. Berri gehiago izatean, ohiko bideetatik jakinaraziko da.

Aurrekontua, langileak...

Azken pausoak noiz emango zain daude TETeko kideak. Horren ondotik etorriko da Igeldoko Udalak aurrekontua jasotzea eta pendiente dauden inbertsioak, diru laguntzak... aurrera eramatea. Egun, Donostiako Udalak ematen dituen hainbat zerbitzu ere bere

gain hartuko ditu TETak. Gogoratu behar da Igeldoko Udalak ia 1.500.000 euroko aurrekontua izango duela 2025 urterako. Inbertsioetarako 357.700€ izango dira.

Bestalde, langileak lotzen ere hasi beharko du Igeldoko Udalak. Hasiera batean, lau langile aurreikusten dira: Administrazio Orokorreko Teknikaria (%100), Arkitekto Teknikoa (%100), administraria (%70) eta Teknikari soziokulturala (%50).

Herri Kontseiluaren ordezkariak, Batzarordeak lanean

Prozesu guztian zehar, Herri Batzarretan behin eta berriz landu izan da Herri Kontseiluarekin zer gertatuko den. Desagertzea ez da egokia ikusten momentuz, hainbat zeregin badituelako oraindik, baina argi ikusten da bere indarra gutxituz doala eta joango dela hemen-

dik aurrera. Erreferente izateari utziko dio TETaren sorrerarekin. Hala ere, prozesu honetan zehar askotan aipatu den bezala, talde zabal bat egongo da TETaren inguruan lanean eta herritarrez osatutako batzarordeak izango dira mototara. Batzarorde horiek lanean ari dira gainera eta martxa onean dabiltza bakoitza bere gaietan.

Mantenu eta zerbitzuetako Batzarordea eta Batzarorde Soziokulturala

Hain zuzen, bi batzarorde daude: Mantenu eta Zerbitzuetako Batzarordea, eta Batzarorde Soziokulturala.

Batzarorde Soziokulturaleko kideak astelehenetan biltzen dira (2-3 astero) eta Zerbitzuetako Batzarordeko kideak ostegunetan (2 astero). Batzarordeak irekiak dira eta norbaitek interesa izango balu, harremanetan jarri besterik ez du: 606311734.

Ospatu beharko dugu ba!

Igeldoko Toki Entitate Txikia martxan jartzea nahi baino gehiago atzeratzen ari da. Galdeketa egin eta berehala sortuko zela zirudien. Hasieran, ekaina genuen burutuan. San Pedroekin batera ospatzeko moduan izango ginela esaten ziguten. Gero, udara ondoren izango zela. Udazkenean ez bazen, urtea bukatzerako izango zela... Abendua ere iritsi zen ba, eta ia pasa ere bai. Urtea bukatzeko gutxi geratzen zela, Foru Aldundiak onartu zuen TET sortzea. Azkenean!

Baina hori ere ez zen nahikoa martxan jartzeko. Ordezkariek izendatzea eta lehenengo Auzo Batzarra egitea falta da orain eta ez dago gure esku noiz izango den...

Hala ere, iritsiko da egun hori ere, eta horrekin batera behar bezala ospatzeko eguna, noski!

Badugu gogoia herritar guztiokin batera ospatzeko, ez baita gutxi lortutakoa. Eta honaino iritsi bagara, urte guzti hauetan askok eta askok egin duzuen lanagatik izan da eta denon indarrak bildu dituen Herri Kontseilugatik. Eta baita Itxas Aurrek urtetan egindako borrokatik. Eskerrik asko denoi!

Beraz, bai, dudarik gabe ospatu behar dugula. Horretan ere ari gara eta jasoko duzue gonbidapena. Ea askorik luzatu gabe, hilabete honetan elkartu eta topa egiteko moduan garen!

TET Batzarordea

10 gaztek jasoko dute begirale izateko formakuntza

Orain dela urte batzuk egin zen moduan, Batzorde Soziokulturaleko kideek garrantzitsua ikusi dute egungo gazteei ere aisialdiko begirale izateko formakuntza ematea. Hori horrela, Hezten aisialdi taldearekin harremanetan jarri zen eta formakuntza hori ematea erabaki dute.

Deialdia irekita, 16 urtetik gorako 12 gaztek eman dute izena. Denera 20 orduko formakuntza jasoko dute, lau saiotan banatuta: martxoak 8, apirilak 5, maiatzak 10 eta 17. Goizez izango dira saio horiek,

9:00etatik 14:00etara, Itsas Aurren.

Batzordeko kideek jakinarazi dute, formakuntza jaso izana kontuan hartuko dela Udalekuko begirale izateko.

Izena emateko aukera

Formakuntza dohainik jasoko dute gazteek eta norbaitek gehiago apuntatu nahiko balu, aukera izango luke martxoaren 2ra arte. Gehienez, 25 gaztek eman dezakete izena.

Izena emateko, idatzi: herrikontseilua@igeldo.eus edo 606311734.



Ludoteka erabiltzeko ordutegi eta arauak zehaztu dira

Urte berriarekin batera, Ludotekan aldaketak egon dira. Aurreko Orri Informatiboan azaldu bezala, goiko pisuko espaziora aldatu da umeentzako gunea. Hain zuzen, pianoa zegoen gela, espazio finko bezala jarri da lehengo Ludotekako materiala bertara pasaz, eta horrez gain, erdiko guneko espazioa ere erabiltzeko moduan jarri da.

Espazio aldaketarekin, arau eta ordutegiak ere finkatu dira. Batzorde Soziokulturetik jakinarazi dute, momentuz, ikasturte honetarako dela planteamendua eta egoera eta behar berriak sortu ahala, moldaketak egon daitezkeela.

Ostegunetan erdiko gunea ez

Ludoteka erabiltzeko aukera astelehenetik ostiralera izango da 16:00etatik 19:00etara. Ostegunetan, gela itxia erabilgarri egongo da, baina erdiko espazioa ez (ikaslaroak daude).

Asteburuetan ezingo da Ludoteka erabili eta opor garaian (Aste Santuan), gela itxia astelehenetik ostiralera ibiltzeko aukera izango da 19:00ak arte.

0-12 urte bitarteko umeak

Eremua 0-12 urteko umeek erabili ahal izango dute, baina funtzionamendua desberdina izango da adin-ka. Ebaluaketa orriak bete beharko dira erabilera bakoitzeko. Eta zerbait falta edo puskatu bada, bertan adierazi beharko da.

8 urtera bitarte, guraso ardura-dun bat egon beharko da momentu guztian, eta gehienez 2-3 guraso. 8-10 urteko umeekin, nahiz eta gurasoak bertan ez egon, beraiek egin beharko dute jarraipena. Bukaeran, dena ondo geratu dela ziurtatu, besteak beste. 10-12 urteko umeek beraieran hartuko dute ardura eta beraiek beteko dute ebaluaketa orria.

Erabileraren inguruko arauak ere zehaztu dituzte: materiala zaindu eta bere lekuan txukun gorde behar da, ezin da janaririk sartu (sarreran bakarrik jan daiteke), errespetuz jokatu behar da, jolas lasaierako gunea da eta euskaraz hitz egin behar da.

Berogailua itzali, atea itxi...

Ludotekaren erabilerarekin arduraz jokatzeko eskatzen da eta kontuan izateko dena behar bezala geratzen dela: leihoak eta atea itxita, argia eta berogailua itzalita... Sarrera/irteera bakoitzeko kultur etxeko atea itxi egin behar dela azpimarratu dute.

Giltza guraso batek

Dinamizatzailea kultur etxean ez dagoen kasuetan (asteazken eta ostiral arratsaldeak), guraso batek (Maria) giltza izango du Ludoteka irekitzeko.

Festei begira jarrita, proposamenak egiteko garaia da

Urruti dagoela badirudi ere, herri-tar batzuek -edo askok- San Pedro jaiak buruan dituzte jada. Horren erakusle da, besteak beste, Ttonttorro Jai Batzordeak lanean daramatzan hilabeteak.

Jakina den moduan, Igeldoko Jai Batzordeak lan egiteko modu berezia du; herritar bakoitzak haren nahien eta irriken arabera parte har dezake, nahi duen eremuan lan eginez. Lan egiteko modu hori azken urteetan positiboki baloratua izan dela azaldu dute Jai Batzordeko kideek eta aurtengo funtzionatzeko eta antolatze modu horri eustea erabaki dute. Hori horrela, hiru azpi-taldetan egingo dutela lan argitu dute, lan karga banatzeko asmoz: diru zaintzako eta kudeaketako taldea; administrazio taldea eta koordinazio taldea (ekintzak antolatu, egutegia zehaztu...). Horiek guztiz irekiak direla gogorarazi dute.

Bilerara azaldu edo emaila idatzi

Talde horiek funtzionamenduan daudela adierazi dute eta horrez



gain, igeldotarren nahiak, proposamenak eta ideiak batzordeari adierazteko bi aukera daudela jakinarazi dute: «batetik, martxoaren 5ean 19:30etan egingo den bilerara etortzearen gonbita luzatzen dizuegu, jaiak irudikatzen joateko, proposamenak jasotzeko... Eta bestetik, kontuan hartuta denok ezin izango duzuela bileretara etorri, denen ahotsak entzuteko Jai Batzordeko emailera idatzi dezakezue (ttonttorro@gmail.com). Ber-

tan proposamenak luzatu ditzakezue edota aurreko urteetan egin diren eta errepikatzea nahiko zentzuzketen ekintzak azpimarratu».

Eskatzea libre den moduan, beraien esku dagoena egingo dutela azpimarratu dute.

«Esan gabe doa batzordearen bilerak guztiz irekiak direla: haur, gazte zein heldu! Eragin buruari eta ea denon artean San Pedro eder eta parte-hartzaileez gozatzeko dugun!» egin dute dei.

Urteko batzarra egingo du Din-dinek

Martxoaren 16an urteko batzar orokorra egingo du Din-din elkarteak. Beste gaien artean, Juntako kideen aldaketa egitea tokatuko zaie. Ohi bezala, bi urtez lanean aritu diren hiru kide aterako dira eta horien ordez, beste hiru kide berri sartuko dira. Iaz sartutako kideek bertan jarraituko dute. Pello Galarraga, Ibai Beñaran eta Iker Bazterrika aterako dira. Ander Zubeldia, Iñaki Berzosa eta Beñat Perez mantenduko dira. Hiru kide berriak ez dituzte jakinarazi momentuz.

Pala Txapelketa azken fasean sartu da

Neguko Pala Txapelketa azken fasean sartuta dago otsailaz geroztik. Final laurdenak jokatu, finalerdiak jokatu dira orain asteburu honetan eta datorrenean. Finalak, berriz, martxoaren 14an (ostirala) jokatuko dira.

Aurtengoa 6. edizioa da eta inoizko parte hartze altuena izaten ari da. 55 bikote ari dira parte hartzen txapelketan, hiru mailatan banatuta: mutilen lehengo mailan 9 bikote, mutilen bigarren mailan 28 bikote eta nesketan 18 bikote. Igeldotik 8 bikotek hartu dute parte.



Parte hartze prozesua bideratzeko talde motorra sortzen ari dira. Otsailaren 17an egin zuten lehenengo bilera.

HERRI PLANA - PARTE HARTZE PROZESUA:

Nolako Igeldo nahi eta behar dugu?

Igeldoko Toki Entitate Txikia martxan jartzen denean, Igeldoko egoera hobetzeko erabakiak hartu beharko ditu. Zerbitzuak nola hobetu eta zer indartu, inbertsioak non egin... Erabaki horiek behar bezala hartzeko eta lehentasunak markatzeko, garrantzitsua ikusi da aurretik parte hartze prozesu bat egitea eta Herri Plan bat zehaztea denon artean.

Etxebizitzak, taberna bat, eskolako kantxa estaltzea, plazako koxkak kentzea, gimnasio bat... Bakoitzari ideia asko eta desberdinak bururatzen zaizkigu Igeldon zer behar dugun galdetzerakoan. Igeldoko Tokiko Entitate Txikia martxan jartzen denean, hainbat urtetan herritarrek eskatutakoari erantzun eta inbertsioak zentzu horretan egitea izango du helburua. Baina nondik eta nola hasi behar horiei erantzuten? Zein lehenetsi? Eta zeintzuk dira benetan behar beharrezkoak?

Horren aurrean, Igeldoko TETaren bueltan lanean dabiltzan batzordeetako kideek argi ikusi dute lehe-

nengo pausoa Herri Plana osatzea dela. Herri Plan hori ahalik eta azkarren osatzea komeni da Igeldoko Udalak datozen urteetan egin behar dituen inbertsioak ondo bideratuak izateko. Hori horrela, parte hartze prozesu bat eramango da aurrera; izan ere, herritar eta eragileekin batera osatuko da Igeldoko Herri Plana.

Herri Plana osatzeko asmoa dagoen arren, batzordeetako kideek azaldu dute, batez ere kaxkoan zentratu nahi dutela, hasteko, hobetu beharreko hainbat kontu daudelako bertan eta herritar guztien elkargune delako.



Kaxkoan zehar dauzkagun espazioak ere aztertu beharko dira.

Enpresa baten laguntzarekin

Batzordeetako kideek adierazi dutenez, parte hartze prozesua behar bezala egiteko, enpresa baten zerbitzuak kontratatzea izango litzateke asmoa. Behin Igeldoko TETa martxan jartzen denean, hori izango da lotu beharrekoa.

Talde motorra osatzen

Parte hartze prozesua lehenbailehen martxan jartzeko, lanak aurreratu nahian dabilta batzordeetako kideak. Asmo horrekin, talde motorra izango dena osatzen ari dira orain. Otsailaren 17an bilera egin zuten hainbat herritarrekin batera eta aste hauetan zehar talde hori osatzea izango dute helburua. Talde honen zeregina izango da kontratatzen den enpresari laguntza ematea, ahalik eta ondoen egiteko prozesua; hau da, ahalik eta herritar gehienek iritzi eta ekarpenak biltzeko. Herritarren batek talde motorrean sartzeko interesa badu, harremanean jarri besterik ez du: 606311734.

Beharrak pentsatzeko garaia

Parte hartze prozesu hauetan ohi-koa den bezala, modu desberdinak

AIPATU IZAN DIREN BEHARRAK

- Etxebizitzak bertakoentzat
- Plaza irisgarri jartzea eta komunak egokitzea
- Plaza peatonalizatzea
 - Herriko ostatua
- Materiala gordetzeko eta etorkizuneko brigadarentzako biltegia
 - Eguneko zentroa
 - Kontsultorio bat
- Herriko eragile eta taldeentzako espazio gehiago izatea
- Kultur ekintzetarako azpiegitura egokiak izatea
 - Eskolako kantxa estaltzea
 - Ume eta gazteen aisialdirako ekipamenduak: rokodromoa, pump track, ur-parkea, pin-pon mahaiak...
 - Gimnasio bat
- Abiadura moteltzeko neurriak hartzea
- Benta Alegreko kruzeari konponbidea

erabiliko dira herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzeko: bilera irekiak, sektorekako bilerak, elkarriketak, galdetegiak, deribak edo herriko bisitak... Modu batera edo bestera herritarrok parte hartzeko momentua izango da eta batzordeetatik azaldu dutenez interesgarria litzateke etxeko lanak egiten joatea. Zer falta du Igeldok? Nola hobetu dezakegu?

Aurrez esan bezala, batez ere kaxkoak hartuko du zentralitatea, beraz, egokiena litzateke ekarpenak bertara zuzenduak izatea.

“ Batez ere kaxkoak hartuko du zentralitatea, beraz, egokiena litzateke ekarpenak bertara zuzenduak izatea ”

Eskumenen baitan

Parte hartze prozesuan zehar bildutako beharrak aztertu egingo dira ondoren eta lehentasunak jarriko ditu Igeldoko Udalak. Horrez gain, kontuan hartzeko muga batzuk ere izango dituela gaineratu dute batzordeetako kideek: «Igeldoko Udalak dituen eskumenekin lotuta egongo dira inbertsioak. Baliteke behar garrantzitsu bat adieraztea herritarren batek, baina gero ezin aurrera eraman geratzea ez delako Igeldoko Udalaren eskumena».

Junta berrituta ekingo diote martxoari Jubilatuek

Orri Informatibo hau bukatzean, herriko Jubilatuek oraindik egin gabe zuten urteko batzar orokorra. Azaldutakoaren arabera, otsailaren 23an egitekoak ziren batzarra eta bertan junta berritzeko hautagaien zerrenda aurkeztu behar zuten batzarrak baieztatzeko. Beraz, junta berrituta ekingo diote martxoari.

Horrez gain, 2024ko balantze ekonomikoaren berri eman eta egindako aktibitateen balorazioa egiteko asmotan ziren batzarrean. 2025 urterako proposatzen dituzten ekintzen egutegia ere aurkeztu behar zuten. Azkenik, Dindin elkartearen hamaiketako batekin bukatzekotan ziren.



SANTA AGEDA BEZPERAKO KOPLAK KANTARI

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, Dindin Elkartearen bazkaldu ondoren, herria girotu zuten jubilatuek akordeoi, kitarra eta abestiekin. Makilekin lurrari kolpeka aritu ziren bere neguko lozorrotik esna zedin. Herriko eskolatik abiatu ziren eta irakasle eta umeekin koplak abestu zituzten. Ondoren, goiko etxeetatik barrena Iturrietaraino joan ziren koplak kantatuz. IKO dendan ere abestu zuten, azkenik herriko plazan bukatzeko. 25 pertsonak hartu zuten parte ekimen honetan eta oso ondo pasa zutela azaldu dute.

Igeldoko liburua interneten ere eskura egongo da laster

Igeldoko historia eta istorioak liburua 2023an argitaratu zen. Sekulako harrera izan zuen eta ale guztiak saldu eta banatu ziren. Lehenengo helburu hori lortuta, beste helburu bat ere jarri zuten ondorenean liburuaren bultzatzaileek. Bertako edukia interneten denen eskura egotea zen hurrengo pausoa.

Asmo horrekin, euskal Wikipedia elkarteko kide den Xabier Cañasekin harremanetan jarri ziren eta zer egin zezaketen galdetu zien. Hark bideratuta, Wikibook bat osatzen ari direla jakinarazi diote Orri Informatiboari; hau da, Wikiliburu bat. Liburua Wikipediako eduki bezala ezin zuten sartu, entziklopedia bat delako, baina Wikiliburu moduan bai.

Liburuko edukia igotzeaz gain, kanpoan geratutako eduki gehiago eta argazkiak igotzeko aukera ere izango dute.

Oraindik ez dute bukatu, baina emaitzak ikusi daitezke dagoeneko. Bilatzailean baserriren baten izena jarri gero, liburuko informazioa bertan azaltzen da. Edo Wikibooks Igeldo jarrita, egin duten lan guztia ikusi daiteke.

Baserriak bukatzen

Azaldu dutenez, Aste Santurako baserri guztien informazioa igotzeko asmoa zuten, baina hainbat zailtasun izan dituzte eta atzeratu egin dira. Behin baserri guztiak igota, liburuaren bigarren zatia-

kin hasiko dira.

Bigarren fasean, artikulua

Bi fasetan banatu dute lana. Orain, liburuko informazio guztiarekin, Wikiliburua osatuko dute eta ondoren, bigarren fase batean, Wikiliburuko testuak baliatuta, artikulua sortuko dituzte Wikipedian Igeldori buruzko artikulua zabaltzeko edo dauden batzuk hobetzeko.

8 lagun lanean

Jabier Iraola liburuaren egileaz gain, 7 lagun ari dira lanean: Alex Aisa, Josune Sorondo, Iraitx Santa Kruz, Nagore Iribar, Arantxa Txintxurreta, Aitor Etxeberria, Aratz Urruzmendi eta Xabier Cañas Wikipediakoa.

'Eman eta jaso' izeneko ekimen berria sortu da

Herritarren artean objektuak trukatzeko helburuarekin sortu da ekimena. Interesa duenak izena eman behar du: emanetajasoigeldo@gmail.com

Sommier indibidual bat soberan dut, norbaiti interesatuko balitzaio...

Etxe ondoko limoneroa gainezka dago, norbaitek saskitxo bat nahi?

Ekimen berri bat jarri da martxan *Eman eta jaso* izenekoa, talde irekia da eta herritarren artean objektuak trukatzeko helburuarekin sortu da.

Ekimenaren inguruko azalpena eman dute bultzatzaileek.

Zertarako?

Objektuak berreralbiltzeko. Etxean behar ez ditugun objektuak eskaini, edukitzea ondo datozkigun gauzen inguruan galdetu eta baita denbora baterako uztea nahiko

genukeen hori ere eskatzeko espazio birtuala izango da.

Zergatik?

Erostea baina lehen norbaitek / norbaiti eskatzea aproposagoa dela uste dugulako, bai objetuen pilaketa ekiditeko, bai poltsikorako eta baita gure planetarentzeko ere, ekonomia zirkularraren ideien barne.

Nola funtzionatzen du?

1. Talde honetan parte hartzea interesatzen bazaizu, idatzi zure izen abizenak eta telefonoa email honetara: emanetajasoigeldo@gmail.com eta eman eta jaso whatsapp taldean sartuko zaitugu.

2. Whatsapp taldea eskaintzeko edo eskatzeko espazio bat da eta bertan iristen diren proposamenei erantzuteko interesa duenak modu pribatuan konektatuko du mezuan zaparradak sahiestearren.

3. Emailak eta hartzaileak adostuko dute zein leku fisikotan elkartzeko diren trukaketa egiteko.

4. Objektu bat uzten badugu, arriskua dugu utzi dugun balditza berdinetan ez itzultzea, eta objetua kaltetuta edo puskatuta bueltatzea, kasu horretan ezingo zaio hartzaileari erantzunkizuna eskatu.

5. Inola ere ez da dirurik erabiliko, dohainik eta eskuzabaltasunean oinarrituta izango dira trukaketak.

'Gurea erabil dezakezu'

Pantailek, eta bereziki, mugikorren erabilera goiztiar eta desagokiaren inguruko kezkak sortutako guraso mugimendua da Altxa Burua. Euskal Herriko, herri, auzo, eskola naiz hirietan indar haundia hartu du talde honek. Haur zein helduen artean pantailen erabilera "kontziente, egoki eta osasuntsu" bat sustatzeko helburua du.

Gipuzkoako herri askotan garatzen ari den prokektua da "Gurea erabil dezakezu" kanpaina. Komertzio desberdinetan lelo hori duten pegatinak jarri dira, esan bezala, Gipuzkoako beste hainbat txokotan abiatuikoari jarraipena emanez.

Idea da, familiei, umeei eta nerabeei esatea, arazoren bat izenez gero eta telefonoaren beharra badute, pegatina daramaten establezimenduetako telefonoa erabili dezaketela. Ekimen honekin zabaldu nahi dena da, ez dela derrigorrezkoa umeei mugikorra erostea behar horri erantzuteko. Gainera, horrela, zaintza komunitarioa ere indartu egiten da.

Gure kasuan, Donostiako udalak, Altxa Buruarekin bat eginez, "gurea erabil dezakezu" pegatinen kanpainarekin bat egin du eta beraz, Donostiako auzoetan eta Igeldon pegatina hauek jarriko dira, komertzioko jabearekin aurrez adostuta.

Igeldo Altxa Buruak, Donostiako kanpainarekin bat egitea erabaki du, Igeldoko gazteek, bertan ikasteaz gain, beren



egunerokotasuneko ekinga asko bertan egin dituztelako. Hori horrela, Igeldon, lau komertzioetan jarri dira pegatinak: IKOn, Txapelan, Kultur Etxean eta kanpinean.

Beraz, orain gure lana, gure haur eta gazteei hori helaraztea da eta normaltasun batetan erabiltzeko esatea.

Eskean ateratakoak Lasturrera joango dira asteburu pasa

Gabonetan eskean atera ziren ume eta gaztetxoek irteera izango dute martxo bukaeran. Hain zuzen, martxoaren 29tik 30era Lasturrera joango dira gaua pasatzera. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 50 bat ume eta gaztetxo apuntatu dira.

Espeleologia, tailerrak...

Ekintza desberdinak egingo dituzte

bertan. DBH eta 5-6.mailakoek espeleologia egingo dute eta 1-4. mailakoek jolasak eta tailerrak. Igandean mendi buelta bat eman-go dute denek.

HH mailakoak egun pasa

Aurreko urtean bezala, HH mailako umeek ere izango dute parte hartzeko aukera. Igandean egun pasa joango dira gurasoek lagunduta.

Besteekin batera mendi buelta eman eta elkarrekin bazkalduko dute ondoren.

Informazio gehiago, aurrerago

Antolatzaileek jakinarazi dute bertara eraman beharreko materiala zehaztuko dutela aurrerago. Familia bakoitzari adieraziko diote pare bat aste lehenago.

Gorputza ezagutzen ari dira Eskolan

Gabonetatik bueltan, bigarren hiru-hilekoan sartu dira Eskolan eta gorputza ezagutzen ari direla azaldu dute. Batez ere LHn, eta HHn txikiak zireneko garaia gogoratzen eta lantzen ari dira.

Bestalde, otsailaren 14an Tabakalerara joan ziren 2. ea 3. ziklokoak.

Egun seinalatuak ospatzen

Ohi bezala, egun seinalatuak eta ospakizunak ere izan dituzte oraingoan. Urtarrilaren 17an, esaterako, Danborrada egin zuten San Sebastian egunari begira.

Bestalde, otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, herriko jubilatuen bisita jaso zuten. Kantu jirako kideak eskolara gerturatu ziren kopla kantari. 3. zikloko ikasleek ere, esker moduan, koplak eskaini zizkieten bueltan. «Mila esker bisitagatik eta ea hurrengo urtean zuekin ateratzeko aukera dugun!», azaldu dute.

Orain, Inauteriak ospatzea tokatzen zaie. Otsailaren 28an izango da eta "Joko olinpikoak" jarri dute mozorrotzeko gaitzat.



Pozik etorriko dira berriz ere!

Benetan, etxean geratzeko moduko eguraldia egin zuen abenduaren 24an, baina euriari aurre egiteko behar ziren aterki, beroki, bota eta pontxoak hartuta, hantxe atera ziren etxez etxe eskean herriko ume, gazte eta gurasoak. Olentzero, Maridomingi eta astoa pozik etorriko dira berriz ere Igeldora halako jarrera ikusita!

Urte zaharretako eskea ere oso giro onean egin zuten. Hemen daukazue Gabonek utzitako irudi batzuk.



EMAKUMEAREN EGUNA IGELDON

Martxoak 5 asteazkena
17:00 Herria apaindu

Martxoak 7 ostirala
17:00 Ibilaldia Igeldon zehar
19:00 Emakumeak kontu kontari
eta mokadutxoa Itsas Aurren

Martxoak 8 larunbata
12:30 Manifestazioa
(12:15tan Ezeizan elkartuko gara)
19:30 Txapelan poteorako prest
20:30 Afaria Calongen

Afarirako izen-ematea martxoak 2 arte: Txapelako zerrendan,
656008455 (Karmele) edo 696308450 (Maiden)

OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarrik gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak maiatzetan eta uztailan izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

